**BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, HONAKO XEDE HAU DUEN URTE ANITZEKO, 2022-2023, KONTRATUARI BURUZKOA: "EUSKARALDIA 2022 DINAMIKAREN IKERKETA"**

## 1. Kontratuaren xedea

Euskaraldia 2022 dinamikaren ikerketa egitea da kontratazioaren xedea. Ikerketa 2022an eta 2023an egingo da.

## 2. Egin beharreko lanaren ezaugarriak

2022ko Euskaraldiari buruzko azterketak 2 zati izango ditu:

1. EUSKARALDIAN PARTE HARTUKO DUTENEI BURUZKO AZTERKETA

Euskaraldian parte hartuko duten guztien (norbanako zein arigune) ezaugarriak zehaztea da azterketaren lehenengo zati honen helburua. Euskaraldian parte hartuko duten guztiek (norbanako zein arigune) osatuko dute ikerketaren unibertsoa, eta honako ezaugarri hauen arabera sailkatuko dira:

- Sexua
- Adina
- Eremu geografikoa
- Gune soziolinguistikoa
- Rola (ahobizi edo belarriprest)
- Euskararen ezagutza
- Erraztasuna
- Lehen hizkuntza
- Erabilera (etxean, lagunekin, lankideekin/ikaskideekin)

Azterketaren datu-oinarria Euskaraldian izena eman dutenen datu-basea izango da. Datu-oinarri horretatik lortutako informazioa osatzeko, enpresa esleipendunak Euskaraldian parte hartuko duten guztien (norbanako zein arigune) lagin adierazgarria egingo du. Lagin horri inkesta egingo dio, izena emateko orrian jaso ez diren baina parte hartzaileen ezaugarriak zehazteko ezinbestekoak diren aldagaiak jasotzeko. Emaitzak adierazgarriak izango dira EAEn Euskaraldian parte hartu duten guztieentzat. Euskaraldian izena emateko orriaren bidez zer informazio jasoko den ezagutu

ondoren, enpresa esleipendunak lagina eta eskatutako ezaugarrien araberako galdetegia proposatuko ditu.

Emaitzen irakurketari dagokionez, enpresa esleipendunak 2018ko eta 2020ko edizioei buruzko ikerketen emaitzak ere izango ditu kontuan, eta horietan oinarrituta egingo du bilakaeraren azterketa.

2. PARTE-HARTZAILEEN JARDUNARI ETA JARDUN HORREN ERAGINARI BURUZKO AZTERKETA

Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileen jarduna nolakoa izan den eta jardun horrek parte-hartzaileen harreman-sarean nolako eragina izan duen aztertuko da. Ikerketak honako galdera hauei erantzungo die:

<u>Norbanakoen kasuan</u>:

Zein izan da Euskaraldian parte hartzeko arrazoia? Zer aurreikuspen edota erronka zuten parte-hartzaileek eta zein neurrritan bete dira aurreikuspen edota erronka horiek?

Zer pertzepzio dute Euskaraldian izan den parte-hartzeari buruz? Zeren bidez jaso dute pertzepzio hori?

Zer zailtasun izan da aurreikuspen edota erronka horiek betetzeko?

Nola sentitu dira parte-hartzaileeak ariketak iraun duen bitartean?

Rolak ondo ulertu eta bereizi dituzte parte-hartzaileek?

Rolak behar bezala, eroso bete dira? Hala izan ez denean, zer zailtasun edo oztopo izan da?

Nola sentitu eta moldatu dira parte-hartzaileak Euskaraldian parte hartu duten beste pertsona batzuekin jardun dutenean? Erraz identifikatu dituzte? Nola identifikatu dituzte?

Eta Euskaraldian parte hartu ez dutenekin jardun dutenean?

Zer eragin izan du parte-hartzaileen jardunak (rolak) bere harreman-sarean? Harreman-sare berriak eratzeko balio izan du?

Euskaraldiak erabileran eragin du? Ariketa hasi aurretik baino euskara gehiago erabili du parte-hartzaileak ariketak iraun duen bitartean? Eta ondoren? Hala bada, zein erabilera-eremutan eta nola?

Ariguneen kasuan:

Zein izan da Euskaraldian eta bereziki arigune batean parte hartzeko arrazoia? Zer aurreikuspen edota erronka zuten parte-hartzaileek eta zein neurrritan bete dira aurreikuspen edota erronka horiek?

Zer pertzepzio dute Euskaraldian izan den parte-hartzeari buruz? Zeren bidez jaso dute pertzepzio hori?

Zer zailtasun izan da aurreikuspen edota erronka horiek betetzeko?

Nola sentitu dira parte-hartzaileeak ariketak iraun duen bitartean?

Rolak ondo ulertu eta bereizi dituzte parte-hartzaileek?

Rolak behar bezala, eroso bete dira? Hala izan ez denean, zer zailtasun edo oztopo izan da?

Nola sentitu eta moldatu dira ariguneko kideak ariguneko beste kide batzuekin jardun dutenean? Eta arigunean parte hartu ez dutenekin jardun dutenean?

Ariguneak nola eragin du ariguneko kideengan eta arigunearen eragin-eremuan?

Erabileran eragin du? Nola? Ariketa hasi aurretik baino euskara gehiago erabili dute ariguneko kideek ariketak iraun duen bitartean? Eta ondoren? Arigunetik kanpo harreman-sare berriak eratzeko balio izan du?

Ikerketaren bigarren zati honetan azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egingo dira:

- Azterketa kuantitatiboari dagokionez, emaitzak estatistikoki adierazgarriak izango dira, eta enpresa esleipendunak galdetegia eta laginaren tamaina proposatu beharko ditu.
- Azterketa kualitatiboari dagokionez, enpresa esleipendunak proposatuko du zein teknika eta nola erabili.
- Emaitzen irakurketari dagokionez, enpresa esleipendunak 2018ko eta 2020ko edizioei buruzko ikerketen emaitzak ere izango ditu kontuan, eta horietan oinarrituta egingo du bilakaeraren azterketa.
- Aurreikuspenei, erronkei eta erabilerari lotutako galderei erantzuteko, hiru neurketa-aldi aurreikusten dira: Euskaraldia hasi aurretik, birtartean eta ondoren.

**3. Emaitzak aurkezteko modua**

Azterketaren emaitzen txostena eta emaitza nagusien laburpena jasoko duen txosten exekutiboa idatziko ditu enpresa esleipendunak. Txostenak Word eta A-4 formatuan aurkeztu behar dira, eta biak EAEko bi hizkuntza ofizialetan.

Grafikoak, taulak eta irudiak beste txosten batzuetara erraz egokitzeko moduko formatuetan izan beharko dira, eta guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egon beharko dira.

Datu guztiak formatu erabilgarrian (excel, access, spss…) eman behar dira. Lana bukatutakoan, enpresa esleipendunak behin betiko datu-oinarria emango dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari.

Azterketa osoa jasotzen duen txostenean HPSren logoak agertu behar du aldi oro. Txosten exekutiboan, HPSren logoak agertu behar du soilik, ez besterik.

Emaitza edozein dela, txostenean informazioa sexuaren arabera jasoko da, testuan zein euskarri grafikoetan.

**4. Lanen jarraipena**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eta enpresa esleipendunari dagokie lanaren jarraipen egokia egiteko pertsonala izendatzea.

Jarraipena egiteko prozedura eta egutegia Zuzendaritza honek eskatutakoari jarraituz zehaztuko dira; lanaren hasieran ezarriko dira eta lana egin den bitartean berrikusi ahal izango dira.

**5. Lantokia**

Kontratuaren arabera bete beharreko lan guztiak enpresa esleipendunaren egoitzan edo honek horretarako aurreikusitakoetan egingo dira. Azken horiek ez dira inoiz Eusko Jaurlaritzarenak izango.

**6. Harreman funtzionala eta organikoa**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ez du inolako lan-harreman funtzionalik ez organikorik ezta kontratu bidezkorik ere izango landa-lana egiteko esleipendunak erabiliko duen pertsonalarekin, ez kontratuak iraun bitartean ezta ondoren ere.

**7. Esleipendunaren betebeharrak**

a) Kontratu honen xede diren lanak burutzeko, bermatzeko eta haien jarraipena egiteko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko ditu.

b) Kontratu honen jardueretatik eratorritako jabetza intelektualaren eskubide guztiak EAEko Administrazioarenak dira, indarrean dagoen legedian jasotzen den eran. Eskubide horien lurralde-eremua mundu mailakoa da. Hortaz, enpresa esleipendunak lana gauzatzeko garatuko dituen lan, aplikazio, euskarri eta gainerako materialen gaineko Euskal Administrazioaren jabetza-eskubideak gorde beharko ditu.

c) Enpresa esleipendunaren plantillarako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa aplikatuko dela bermatuko da, honako hauei lotutako politiketan: prestakuntza, langileen hautaketa, sailkapen edo kategoria profesionalak, arreta, mailaz igotzea, soldatak, egonkortasuna edo lanen jarraitzea, ordezkaritza, lan-segurtasuna eta -osasuna, eta lanaldiaren iraupena eta antolamendua.

Vitoria-Gasteizen,

JON JOSEBA AIZPURUA ESPIN - 78864847D

Digitalki sinatuta norengandik: JON JOSEBA AIZPURUA ESPIN - 78864847D
Data: 2022.06.30 13:02:44 +02'00'

Jon Aizpurua Espin

Plangintza eta azterlanetako arduraduna